

---

# 7.4.

## 4. ERANSKINA: OSASUN PLANEAN ERAGINA DUTEN NAZIOKO, EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO AKORDIOAK

2013-2020 Euskadiko Osasun Planaren helburuak zehaztu baino lehen Osasun Publikoaren alorrean Estatuko, Europako eta nazioarteko mailetan erreferentziakoak diren akordioen berrikuspen arina egin da.

Ikusketa honetan hainbat eremutako jardunak begiratu dira: osasunaren sustapenekoak, gaisotasunen prebentzioko eta segurtasun sanitariokoak, hiritarren bizi-kalitatea hobetu dezaketen estrategia iraunkorrekoak, ingurumenak osasunean duen eraginekoak, eta elikagai segurtasuneko eta higienekoak. 9. taulan ikus daitezke akordio hauen helburu nagusiak eta horien erakunde sustatzaileak.

-

**9. taula.**  
**Estatuek, Europak eta nazioarteak osasun publikoaren alorrean egindako akordio nagusiak.**

<b>OSASUN PUBLIKOARI LOTUTAKO AKORDIOAK</b>	<b>XEDEA</b>	<b>ERAKUNDE SUSTATZAILEA</b>
Nazioarteko Osasunaren Araudia	Gaixotasunak nazioartean heda ez daitezen prebenitzea; hedapen horren aurkako neurriak hartzea; hedapena kontrolatzea; neurriko erantzuna ematea, osasun publikoko arriskuei bakarrik aurre eginez, eta betiere sahiestea nazioarteko trafikoarekin eta merkataritzarekin beharrezkoak ez diren interferentziak.	Osasunaren Mundu Erakundea (OME) Hemen aurki daiteke: <a href="http://www.who.int/ihr/es/">http://www.who.int/ihr/es/</a> [Data: 2012ko uztailaren 11]
Erkidegoak Osasun Publikoan Ekiteko Bigarren Programa, 2008-2013	Herritarren segurtasun sanitarioa hobetzea; osasuna bultzatzea; gai horri buruzko ezagu-tza eta informazioa sortzea eta zabaltzea, prebalentzia handiko gaixotasunei aurrea hartzen eta horien intzidentzia murrizten lagun dezaketen ekintzen bidez.	Europako Parlamentua eta Kontseilu Europarra Hemen aurki daiteke: <a href="http://europa.eu/legislation_summaries/">http://europa.eu/legislation_summaries/</a> [Data: 2012ko uztailaren 11]
Europar Batasuneko Garapen Iraunkorraren Estrategia	Herritarren bizi-kalitatearen etengabeko hobekuntza lortzea da helburu orokorra, eta, horretara iristeko, baliabideak eraginkortasunarekin kudeatuko eta erabiliko dituzten eta, gainera, ekonomiaren berrikuntza ekologiko eta sozialaren potentziala ustiatuko duten erkidego iraunkorren bitartez jardungo da, betiere oparotasuna, ingurumenaren zaintza eta gizarte kohesioa bermaturik izanda.	Europako Batzordea Hemen aurki daiteke: <a href="http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/224-ES/ES/224-ES-ES.PDF">http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/224-ES/ES/224-ES-ES.PDF</a> [Data: 2012ko uztailaren 11]

Iturria: Geuk egina